

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Salaburu Arrijuria

*Baztan,
Nafarroa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Elizondon jaioa, mendiko
borda batean; ama bertakoa
zuen eta aita Gartzaingoa.
Bost senidetan zaharrena, 7
urterekin hasi zen eskolan;
urtebete egin zuen Elizondon
eta gero Elbeten ibili zen 12
urtera arte. Ondoren morroi
joan zen Aldudeko baserri
batera; zortzi urtean egon
zen han. Basoko lanetan ibili
zen ondotik, 1965ean
Ameriketara joan zen arte:
Bakersfieldera, Kalifornia.
Artzain egin zituen lau urte
eta "campero" beste bat,
Mendiburu ardi-nagusiarekin.
Gero San Franciscora joan
zen lanera, Aldudeko familia
batentzat lorezaintzan
aritzera. Hiru urteren buruan
bere kontura hasi zen
lorezain. Euskal Herrira
bisitan joan zen batean
Karmen ezagutu zuen,
Arizkungoa; 3 urtetan izan
ziren nobioak, baina
distantziara elkarritz gutunak
idazten, eta gero ezkondu eta
Ameriketara joan ziren
bizitzera. Alaba bat eta seme
bat izan zituzten. 1982an San
Franciscoko euskal etxearen
sorreran parte hartu zuten.

Zintak

BAZ-037

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-10-02
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com